

**AURKEZPEN GARBI BAT SORTZEKO :**

Zertarako sortu diaporama bat ?

Lehen-lehenik, komunikazio baliabide bat da, hauxe lortzeko erabiliko dena :

- hitzaldi bat indartu
- hitzaldi bat pertsonifikatu
- hitzaldi bati bizia eman
- ideiak antolatu eta argitu
- entzuleak sustatu eta erakarri
- hitz-gakoak inposatu
- ideiak agerian eman

10/20/30-en araua : oinarri baliagarria

araua hau ezingo da edozein diaporamatan erabili baina usu aurkezpena horretan oinarrituko da, egokitzapenak beharraren arabera eginez.

10 diapositiba

20 minutuko aurkezpena

30 : gutienezko letren tamaina

Baitezpadako arauak :

- eleen argitasuna
- diapositiben itxuraren koherentzia : atzeko plano, letra tipoa, tamaina...
- edukiaren irakurgarritasuna
- aurkezpen sinplea (efektuak, trantsizioak,...)
- entzuleen kontutuan hartzea : hiztegi, apaingarrien hautua, kopurua, iraupena, ...

Aurkezpenari doazkion aholku batzuk :**Letra tipoaren hautua :**

- erraza irakurtzeko
- azpimarratuak saihestu

Letren tamaina :

- tituluak : 38-tik 44-ra
- azpтитuluak eta testua bera : 24-tik 32-ra
- diapositiba batetik bestera letren tamaina berdindu (koherentzia)

Koloreen hautua :

- testuaren eta gibleko planoaren arteko kontrastea (irakurgarritasuna)
- 3 kolore osagarri gehienik diapositiba batean
- ahalaz kolore bateko atzeko planoak erabili ez eta irudiak edo kolore mailakatzeak.

**Diapositibaren aurkezpen orokorra :**

- izenburu originalak eman
- 6 lerro testu diapositiba batean
- bataz beste 6 hitz lerroka
- lerro hastapenean buletak erabili

Testuaren aurkezpena

- testuak ezkerrean lerrokatu
- ideiak laburzki aurkeztu
- testu luzerik ez
- puntuak saihestu lerro hondarrean
- testua eta ideiak aireztatu
- testuak mugatu pantailaren beheko zatian

Apaingarrien hautua (testu edo irudi)

- eskema sinpleak eta egokiak
- egile eskubideak : iturriak eta sortzaileak aipatu (argazkientzat edo testuan egindako aipamenentzat)

Animazioak diapositibetan :

- xuhurki erabili
- neurriko animazioak hobetsi, sinpleak
- saguaren bidez manatu ez eta automatikoki

Diapositiben arteko trantsizioak :

- xuhurki erabili
- neurriko trantsizioak erabili, sinpleak
- saguaren bidez manatu (timing delakoa menperatzeko)
- kasu eman modu automatikoan egindako diaporamari (hitzarekiko sinkronizazioa)